

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: B2 MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketak

- 1. ZATIA. Aztertzaileren galderak
- 2. ZATIA. Gaia garatu
- 3. ZATIA. Bat-bateko elkarrizketa

(minutu 1 ikasleko)

(2 + 1 min. ikasleko)

(2:30 min. ikasleko)

**Guztira 15 bat
minutu
(bikoteko)**

Gaia prestatzeko denbora:

10 minutu inguru dituzu gaia prestatzeko.

Amaitzen duzunean, itxaron aztertzailerek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

137. gaia: Ezkontza-opariak



Egoera

Lehengo ezkontzetan gonbidatuek nahi zutena oparitzen zuten. Geroago, ezkontideek ezkontza-zerrendak irekitzen zituzten eta hortik gonbidatuek opari bat aukeratzen zuten. Duela urte batzuetatik hona, berriz, ohikoena dirua oparitzea da. Dena den, batzuei ez zaie ohitura hori gustatzen.

Egitekoa

Azaldu zein diren gonbidatuek nahi duten oparia egitearen alde onak eta txarrak. Azaldu noiz izan daitekeen lagungarri denda jakin batean opari-zerrenda jartzea. Adierazi zein diren dirua oparitzearen abantailak eta eragozpenak. Esan zer egingo zenukeen ezkontza-opari bat egin beharko bazenu, eta zuk ze opari-mota jaso nahiko zenukeen.

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzailerek beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere gaiaren azalpena bukatzen duenean, zuri galdetuko dizu.

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**